

Jauregia Esnekiak. EKOLOGIKOAK

Koronabirusak sortutako egoera dela eta, egoera berriaren aitzinean gure kezka adierazi nahi dizuegu. Dakizuen bezala, nekazariak gure egunerokoan jarraitu behar dugu, gizarteari elikagaiak ekoiziz. Gure behiek egunero jaten dute eta ondorioz egunero esnea ekoizten dute. Gainera osasun segurtasunarengatik Elizondon daukagun esne makina estera behartu gara. Ekoizpena ezin dugunez gelditu, zuengana zuzentzen gara edozein esneki zuen etxeetara eraman ahal izateko.

Krisia hasi denetik, bai komunikabide, bai maila guztietako arduradun instituzunalen aldetik, baita erakundeen aldetik ere, elikadura sistema mantendu beharreko funtsezko zerbitzu bat dela adierazi dute.

SEGURTASUN NEURRIAK

Jauregiak:

- Eskularruak erabiltzea derrigorrezkoa izanen da (materiala norberak ekarri beharko du).
- 1,5 metroko segurtasun tartea mantentzea.
- Erosketa bakoitzetik bertzera, eskuak desinfektatu beharko dira.
- Produktuak, baserritarrak bakarrik ukitu ahal izanen ditu eta ezingo dira erosleen aitzinean egon.

Erosleek:

- Familia bakoitzeko pertsona bakarra.
- Ez etorri ume edo helduekin.
- Arrisku-talde batekoa bazara, ez etorri: arrisku taldeak bihotzeko gaitzak dituztenak, organoren bat transplantatua dutenak, arnasketa gaitzak dituztenak...dira. Erreferentzia gisan urtero gripearen txertoa jasotzeko gomendio-eskutitza jasotzen dutenak).
- 1,5 metroko segurtasun tartea mantendu..
- Produktuak ezingo dira ukitu.

Aipagarria da ere, kasu honetan eramaten diren esnekiak ekoizpen eta banaketa kate arras laburra daukatela. Etengabe eskuak garbitu behar direla argi daukagu denok. Eta jatekoak zenbat eta esku guttiagoetatik pasatu, kutsadura punturen bat sortzeko aukera gero eta guttiago dagoela argi dago.

Gure baserrietako produktuak baserritarraren eskutik bezeroaren eskura bertzerik ez dira pasatzen. Elikadura gune handietan elikagai bat ekoiztu denetik, bezeroaren eskuetara ailegatzan den arte, hainbat eskuetatik pasatzen dira eta neurri zorrotzak hartu arren, zenbat eta kate-begi gehiago izan, are eta errezagoa da kate horretan kutsadura punturen bat sortzea.

Gure produkturen bat nahi izanez gero, deitu edo whatsapp bat didali 675 550 960 mugikorrera.

Banaketa eskualdeka antolatuko dugu. Banaketa antolatu ondoren, mezu baten bidez adieraziko dizugu noiz joanen garen zuen etxeetara, prest egon zaitzeten. Mezuan ere, erosketaren zenbatekoa erranen dizuegu.

Erosketa minimoa 10€ izanen da.

Eskermile